


XAMARIKOREN IKASTAROA. *Ipuin, kantu, kontu eta jolasen zorroa.*

<i>Iraupena</i>	8 - 10 ordu, 2 orduko 4 – 5 saiotan. Astean behin edo bitan gehienez. Egun jarraituetan ez. Hilabete bat baino gehiago ez da luzatu behar. Oporrak edo festak badira astean bi egunetan egin daiteke.
<i>Nori zuzendua</i>	Edozein helduri, euskaldun nola erdaldun izanda. Ahal izanez gero, eta kopuruaren arabera, bi talde osatuko dira. Erdaldunekin, euskara baino, motibazioa landuko da gehiago. Bereziki egokia ondokoondako: <ul style="list-style-type: none"> - Haur Eskoletako hezitzaile zein gurasoendako. - Ludoteketako hezitzaileendako. - Ludoteketan ipuingintza nola bertze gai batzuen gaineko (mitologia, kasu) tailerretarako. - Euskara ikasten ari direnendako, ekintza osagarri moduan.
<i>Parte hartzaileak</i>	10 - 16
<i>Justifikazioa</i>	Helduok euskal kultura, gure kantak eta ipuinak bereziki, ezagutzea beharrezkoa dugu haur txikien mintzamina, ulermena eta, oro har, ahozkoasuna garatzen laguntzeko. Kantu eta ipuinez gain, gorputz eta mugimendu jolasak (esku, hatz zein txalo bidezkoak), sehaska eta dantza kantak, harrapaketan jostatzeko formulak, hitz-joko eta hitz-korapiloak ere... ikasteari arreta berezia eman behar zaio.
<i>Helburuak</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko hizkuntza erabiltzeko gaitasuna lantzea. 2. Ahozko hizkuntzarekin jolastu eta gozatzea. 3. Euskal folkloreko ipuinak, kantak, jostatzeko formulak,... ezagutu eta lantzea. 4. Ipuinak sortzeko teknika ezberdinak eta kontatzeko orduan kontuan hartu beharrekoak ikastea. 5. Sormena, idazmena eta interpretazioa lantzea. 6. Haur txikiekin aritzeko baliabideak jolastuz lantzea.
<i>Edukiak</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ipuinak, marrazkien bidez kontatzeko, idatziz nola ahoz, teknika ezberdinak. 2. Ipuinak, idatziz nola ahoz, kontatzeko teknika ezberdinak. 3. Ipuinak bertsoen bidez kontatzeko teknika ezberdinak. 4. Ipuinen egitura edo hezurdura. 5. Ipuinen hizkuntza, ipuinen hasiera eta bukaerako formulak. 6. Kantu jolasak (psikomotrizitatea), kantu zaharrak eta dantzak. 7. Haur hizkera eta onomatopeiak, hipokoristikoak, hitz korapiloak, igarkizunak, denak jokoan bidez ikastekoak.
<i>Metodologia</i>	Parte hartzaileek 4 - 5 saio izanen dituzte. Saioak hagitz praktikoak izanen dira. Metodologia aktiboa izanen da, baliabideak zein bestelako bitartekoak ikastea nahi baitugu. Saioak praktikoak izateaz gain praktikotasuna bera helburua izanen dugu ematen den guztia gelan hurrekin aplikagarria izanen baita. Moduluen mamiari dagokionez, ikastaro osoan edukiak bateratsu xamar emanen dira, azken egunean izan ezik, ipuinak landuko baititugu.
<i>Irakasleak</i>	Ikerne Indakoetxea, (Sartu zerbait Ikerne) <u>Amaia Telletxea</u> , Dindaiaren laguntzailea, Haur Hezkuntzako irakasle eta AEKn Irakaslea. <u>Oskar Estanga</u> , Dindaiaren laguntzailea, abeslaria eta euskal kantuen gaineko aditu eta zalea. <u>Maidar Ansa</u> , Dindaiaren laguntzailea, abeslaria eta Irakaslea. (Osatu Maidar) .
<i>Koordinatzailea</i>	Rikardo Ederria Irurtzun  948 266240/630544318
<i>Administrazioa</i>	Itziar Abaroa 948266240
<i>Tokia eta data</i>	Hasi: Udaberrian. Apirileko lau asteak eta maiatzeko lehenengo bi asteak. Hasi: Udazkenean urritik hasita maiatza bitartean. Kontuan hartuz hileko gutxienez lau ikastaro eman ditzakegula, ez dago antolaketarako arazo handirik. Udazken-negu sasoa da ikastaro hauek egiteko garairik onena. Jasotzen dugun eskaeraren arabera eta ditugun bitartekoak kontuan hartuta erantzunen dugu
<i>Prezioa</i>	400 Euro eta kilometraia.
<i>Hizkuntza</i>	Euskara. (Gaztelania zein frantsesa erabiliko da taldearen arabera ere bai)
<i>Materialea</i>	“Xamarikoren Ipuin Zorroa”, gida, KDa eta komikiaz osatuta, dohan.